**GOBERNU BATZARRA**

**2024.07.30**

**Alkateordea:**
**Ander Figuerido Zubiria**

**Bertaratutako zinegotziak:**
**Kristina Pelaez Errazkin**
**Aitor Agirresarobe Murgi**

**Ez dira bertaratu:**
**Estitxu Kortejarena Ugarte**
**Goiuri Ezeiza Arandia**

**Idazkari akzidentala:**
**Antton Rivero Urbistondo**

**Kontu-hartzaile akzidentala:**
**Paulino Alonso Eraso**

**Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita lauko uztailaren hogeitahamarrean, 09:30etan, bigarrengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkateordea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:**

1. **Akta hau onartzea: 2024ko uztailaren 9koa.**
2. **Alaine Izagirre Lopezek aurkeztutako helegitea ebaztea.**
3. **Politologoen eta Soziologoen birjarpen-errekurtsoaren erantzuna onartzea.**
4. **Enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuak:**
   - **Praktikaldia konbalidatzeko proposamena onartzea.**
5. **Enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuak:**
   - **Osagarri pertsonal iraunkorrei buruzko proposamena onartzea.**
6. **Onartzea Tolosako Usabal Kiroldegia Mugiment Kirol Txartela ekimenarekin bat egin eta dagokion hitzarmena Eusko Jaurlaritzarekin sinatzea.**
7. **Dekretu hauen berri ematea:**

   **2024/1622 Dekretua: 2024/29 faktura zerrendak.**

   **2024/1732 Dekretua: 2024/30 faktura zerrendak.**

ESKU0165166a-969f-4614-9b43-b38bfc235e3a

**1. AKTA HAU ONARTZEA: 2024KO UZTAILAREN 9KOA.**

Alkateordeak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

**2. ALAINE IZAGIRRE LOPEZEK AURKEZTUTAKO HELEGITEA EBAZTEA.**

**I K U S I R I K**

**Lehena**.- 2024ko ekainaren 11n Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, Tolosako Udaleko Garapen ekonomikoa, enplegua, merkataritza, turismoa eta azoketako arduradun plaza betetzeko hautaketa-prozesuko oinarriak onartu zituen.

**Bigarrena.-** Alaine Izagirre Lopez, deialdian parte-hartzeko interesdunak, errekurtsoa jarri du ondorengoa eskatuz:

1) Merezimendu-lehiaketaren fasearen ehunekoa handitzea, lan-esperientziaren eta etengabeko prestakuntzaren garrantzia islatzeko, merezimendu- eta gaitasun-printzipio konstituzionalen arabera.

2) Lan-esperientzia 2 urte eta 4 hilabete baino gehiagoz handitzea, araudiari eta Tolosako Udaleko historikoari jarraikiz, izangaien ebaluazio bidezkoagoa eta osoagoa ziurtatzeko.

3) Behar bezala egiaztatutako eta homologatutako unibertsitate-ikastaroen balorazioa sartzea, administrazio publikoek homologatutako ikastaroen baldintza berberetan, anbiguotasunak saihesteko eta hautagai guztien baldintza-berdintasuna errespetatzeko.

4) Ikastaro eta master edo titulu propioen balorazio bereizia egitea, eta azken horien ebaluazio xehatua egitea, zehaztasun handiagoa izan dezaten. Era berean, master edo titulu propioen kasuan, 10 urteko iraungitze-baldintza kendu behar da.

5) Oinarri espezifikoak zuzentzea eta 1/2023 Legegintzako Errege Dekretuak ezarritako hautaketa-prozesuetan berdintasunari buruzko irizpideak aplikatzea, oinarri orokorren 21.d. eta 3.d. artikuluetako aurreikuspenak barne, araudiaren koherentzia eta hautagai guztien aukera-berdintasuna bermatzeko.

ESKU0165166a-969f-4614-9b43-b38bfc235e3a

# K O N T U A N   H A R T U R I K

**Lehena.-** Merezimendu-lehiaketaren fasearen ehunekoa handitzeari buruz:

Espainiako konstituzioko 103.3. artikuluan erregulatzen da Legeak arautuko dituela funtzionario publikoen estatutua, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera funtzio publikoan sartzea, sindikatze-eskubidea egikaritzearen berezitasunak, bateraezintasun-sistema eta eginkizunak betetzean inpartzialtasuna bermatzeko bermeak.

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, Enplegu publikorako sartzeko eta zerbitzu-harremana eskuratzeko printzipio gidariak erregulatzen ditu 55. artikuluan:

“Artículo 55. Principios rectores.

1. Todos los ciudadanos tienen derecho al acceso al empleo público de acuerdo con los principios constitucionales de igualdad, mérito y capacidad, y de acuerdo con lo previsto en el presente Estatuto y en el resto del ordenamiento jurídico.

2. Las Administraciones Públicas, entidades y organismos a que se refiere el artículo 2 del presente Estatuto seleccionarán a su personal funcionario y laboral mediante procedimientos en los que se garanticen los principios constitucionales antes expresados, así como los establecidos a continuación:

a) Publicidad de las convocatorias y de sus bases.

b) Transparencia.

c) Imparcialidad y profesionalidad de los miembros de los órganos de selección.

d) Independencia y discrecionalidad técnica en la actuación de los órganos de selección.

e) Adecuación entre el contenido de los procesos selectivos y las funciones o tareas a desarrollar.

f) Agilidad, sin perjuicio de la objetividad, en los procesos de selección.”

Horri loturik, Euskal Enplegu Publikoa erregulatzen duen abenduaren 1eko 11/2022 Legeko 78. artikuluan karrerako funtzionarioak eta langile lan-kontratudun finkoak hautatzeko sistemak erregulatzen dira. 4. puntuan ondorengoa xedatzen da:

ESKU0165166a-969f-4614-9b43-b38bfc235e3a

“78.4. Oposizio-lehiaketan, hautaketa-probak egingo dira, bata bestearen ondoren, eta, era berean, izangaien merezimenduak baloratuko dira, deialdiaren oinarrietan ezarritako baremoen arabera. Neurriko puntuazioa emango zaio merezimenduen balorazioari, ez dadin gerta hark berez erabakitzea hautaketa-prozesuaren emaitza. Lehiaketa-fasearen balorazioa inoiz ez da gehiago izango oposizio-fasean gehienez atera daitekeen puntuazioaren ehuneko berrogeita bost baino. Izangaien egokitasuna ziurtatzeko, kasuan kasuko hautaketa-probetako bakoitzean jarritako gutxieneko puntuazioa gainditu beharko dute izangaiek oposizio-aldian.”

Honetaz gain, apirilaren 18ko 781/1986 Errege dekretu legegileak bere 169.2 artikuluan adierazten du azpi eskala teknikoan sartu ahal izateko azterketa oposizio sistemaren bidez burutuko direla, honi garrantzia eta nagusitasuna emanaz lehiaketa fasearekiko.

Hori guztia kontutan izanda, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2023. ekitaldiko lan eskaintza publikoa onartu zuen 2023ko abenduaren 12an eta bertan oposizio faseak eta lehiaketa faseak proportzio hauek izatea onartu zen:

| | | |
|---|---|---|
| Oposizio fasea (% 85) | Teorikoa | 20 p |
| | Praktikoa | 40 p |
| | Psikoteknikoa | 10 p |
| Lehiaketa fasea (% 15) | Esperientzia | 8,3 p |
| | Formazioa | 4,2 p |

Garapen ekonomikoa, enplegua, merkataritza, turismoa eta azoketako arduradun plazaren kasuan proportzioak horrela mantentzen dira.

**Bigarrena.-** Baloratutako gehieneko lan-esperientzia handitzeari buruz:

Espainiako konstituzioari loturiko berdintasuna, merezimendua eta gaitasuna printzipioak kontutan izanda, Tolosako Udalak Garapen ekonomikoa, enplegua, merkataritza, turismoa eta azoketako arduradun plazaren kasuan 2 urte eta 4 hilabeteko esperientzia baloratzea erabaki du, parte-hartzaile guztien berdintasuna bermatze aldera.
Honez gain, udalak oposizio faseari garrantzi handiagoa ematea erabaki du, funtzio publiko sarbidea erregulatzeko printzipio gidariak bermatzeko asmoz.

ESKU0165166a-969f-4614-9b43-b38bfc235e3a

**Hirugarrena.-** Unibertsitate-ikastaroen balorazioa sartzeari buruz::

Oinarri orokorretako 6.3.d) puntuan epaimahaiaren ahalmenen inguruan ondorengoa xedatzen da:

“d) Epaimahaiak ahalmena izango du, oinarri hauetan edo oinarri espezifikoetan aurreikusita ez dagoen guztian, hautaketa prozesua behar bezala antolatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko, eta prozesua interpretatzeari eta aplikatzeari buruz sortzen diren arazoak ebazteko, bai eta bere eginkizunak betetzeari buruzkoak ere. Halaber, dagozkion neurriak hartu ahal izango ditu, bermatzeko hautaketa-prozesuarekin jarraitu ahal izateko adina izangaik probak gaindituko dituztela.”

Ondorioz, epaimahaiak erabaki beharko du administrazio publikoek homologatutako ikastaroetan zein ikastaro baloratu eta zein ez.

**Laugarrena.-** Ikastaro eta master edo titulu propioen balorazio bereiziari eta 10 urteko iraungitze-baldintzari buruz:

2024ko ekainaren 11ko Tokiko Gobernu Batzarrean onartu ziren Garapen ekonomikoa, enplegua, merkataritza, turismoa eta azoketako arduradun plaza betetzeko hautaketa-prozesua erregulatzeko oinarriak, berdintasuna, merezimendua eta gaitasuna printzipioak kontutan izanda.

Kasu honetan, Tolosako Udalak azken 10 urteetan egindako ikastaroak kontuan hartzea erabaki du, batik bat titulazio zaharkituek egokitzapenik ez dutelako mota honetako lanpostu batean.

**Bosgarrena.-** Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzen Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako dekretuari dagokionez:

Oinarri orokorretako 18.3.d) puntuan ondorengoa xedatzen da:

“d) Lanbide-esperientzia baloratzeko garaian, Epaimahaiak kontuan hartuko du lehenik, zenbat denbora egon den hautagaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik: bigarrenik, zenbat denbora eman duen hautagaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez

ESKU0165166a-969f-4614-9b43-b38bfc235e3a

kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak balia tzen.”

Adierazten den moduan epaimahaiak kontutan izango du hautagaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan igarotako denbora. Ondorioz, kasu horietan %100eko jardunaldian baloratuko dira emandako zerbitzuak.

**PROZEDURA**

Prozedurari dagokionez, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 g) artikuluaren arabera, Alkateari dagokio Udaleko deialdiak onartzea, baina, kasu honetan, lege bereko 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta ikusirik 2023/1718 ebazpena, zeinaren bitartez Alkatetzak Tokiko Gobernu Batzarrean delegatu duen karrerako funtzionarioak zein lanpostu finkoak hornitzeko oinarriak onartzeko eskuduntza, gai hau Tokiko Gobernu Batzarrak ebatzi beharko du.

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I  D U**

**Lehena**.- Merezimendu-lehiaketaren fasearen ehunekoa ez handitzea.

**Bigarrena.-** Lan-esperientzia 2 urte eta 4 hilabete baino gehiagoz ez handitzea.

**Hirugarrena.-** Unibertsitate-ikastaroak baloratzea epaimahaiaren esku uztea, oinarri orokorretako 6.3.d) puntuaren baitan.

**Laugarrena.-** Ikastaro eta master edo titulu propioen balorazio bereizia ez egitea eta master edo titulu propioen kasuan, 10 urteko iraungitze-baldintza ez kentzea.

**Bosgarrena.-** Hautagaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan igarotako denbora %100eko jardunaldian baloratuko dela jakinaraztea.

**Seigarrena**.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

ESKU0165166a-969f-4614-9b43-b38bfc235e3a

### 3. POLITOLOGOEN ETA SOZIOLOGOEN BIRJARPEN-ERREKURTSOAREN ERANTZUNA ONARTZEA.

## I K U S I R I K

**Lehena**.- 2024ko ekainaren 11n Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, Tolosako Udaleko Garapen ekonomikoa, enplegua, merkataritza, turismoa eta azoketako arduradun plaza betetzeko hautaketa-prozesuko oinarriak onartu zituen. Oinarrietan, hautaketa-prozesuan parte-hartzeko baldintza gisa Ekonomiako gradua, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza eta antzekoa eskatzen da.

**Bigarrena.-** 2024ko uztailaren 4an Madrilgo Erkidegoko Politologoen eta Soziologoen Elkargo Profesionalak, udaleko erregistro elektroniko bidez, ondorengoa eskatu du:

1) Garapen ekonomikoa, enplegua, merkataritza, turismoa eta azoketako arduradun plaza betetzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarriak baliogabetzea.

2) Hautaketa-prozesua etetea, aurkeztutako berraztertzeko errekurtsoa ebatzi arte.

3) Oinarri berriak onartzea "Zientzia Politikoetako Lizentziatura eta Gradua" eta "Soziologiako Lizentziatura eta Gradua" titulazioak onartuz. Horri loturik, orain arte izen-emate eskaerak mantentzeko eta "Politika Zientzietako Lizentziatura eta Gradua eta Soziologiako Lizentziatura eta Gradua" dutenek prozesuan parte-hartzeko epe berria irekitzeko eskaera egiten du.

## K O N T U A N   H A R T U R I K

**Lehena.-** Apirilaren 18ko Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuko 167.1. artikuluak ondorengoa xedatzen du:

> “Artículo 167.
> 1. Los funcionarios de carrera de la Administración local que no tengan habilitación de carácter nacional se integrarán en las escalas de **Administración General y Administración Especial** de cada Corporación, que quedarán agrupadas conforme a lo dispuesto en la legislación básica del Estado sobre función pública, en los grupos que éste determine, de acuerdo con la **titulación exigida para su ingreso**.”

ESKU0165166a-969f-4614-9b43-b38bfc235e3a

**Bigarrena.-** Ondoren, 170.1. artikuluan ondorengoa zehazten da:

> *"Artículo 170*
>
> **1.** Tendrán la consideración de funcionarios de **Administración Especial** los que tengan atribuido el **desempeño de las funciones que constituyen el objeto peculiar de una carrera, profesión, arte u oficio**."

**Hirugarrena.-** Lanpostuaren funtzioak ondorengoak dira:

Erantzukizun orokorrak:

Garapen Ekonomiko, Turismo, Merkataritza, Azoka eta Enpleguaren Sustapeneko Sailaren funtzionamenduaz arduratzea.

Lan esanguratsuenak:

GARAPEN EKONOMIKO, TURISMO, MERKATARITZA, AZOKA ETA ENPLEGUAREN SUSTAPENA:

1. Merkataritza, turismoa eta azoka bereziekin lotutako jarduerak sustatzen dituzten programak diseinatu, proposatu, planifikatu eta kudeatzea.
2. Garapen ekonomikoa eta enplegua sustatzeko programak diseinatu, proposatu, planifikatu eta kudeatzea, jarduera eta ekimen profesionalak babestuz eta dinamizatuz.
3. Larunbateko azoka dinamizatzeko, hobekuntzak diseinatu, kudeatu, ebaluatu eta hobekuntzak proposatzea.
4. Beste organismo, entitate eta profesional batzuekin harremanak bultzatu, ezarri eta garatzea, bere eskumen-eremuan.
5. Bere eskumen-eremuan garatutako jarduerak eta programak zabaltzea eta horiei publizitatea ematea, sailetik proposatzen diren gizarte-mugimenduak eta -ekimenak bultzatuz eta dinamizatuz.
6. Koordinazio eta Zuzendaritza Taldean parte hartzea, Herritarren Esparruko teknikari-koordinatzaile lanak eginez.

ESKU0165166a-969f-4614-9b43-b38bfc235e3a

UNITATEKO ARDURADUNA:

7. Zerbitzuan/Unitatean funtzio hauek betetzea: plangintza egitea, gainbegiratzea, proposamenak egitea, erabakiak hartzea, antolatzea, agintzea, koordinatzea eta kontrolatzea.
8. Udalbatzak erabakitako helburu politikoak lortzeko unitatearen funtzionamendu-jarraibideak ezartzea, horiek betetzen direla egiaztatzeko kontrol- eta kudeaketa-mekanismo egokiak ezarriz eta beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak hartuz.
9. Unitatearen jardun teknikoa eta administratiboa sustatzea eta kontrolatzea.
10. Arduradun politikoei aholkularitza teknikoa ematea bere eskumeneko gaietan.
11. Udalbatzarekin bilerak egitea, lanen garapenaren berri emateko eta ezarritako helburuei buruzko kontuak emateko. Unitatearen urteko aurrekontuaren proposamena egitea, haren jarraipena egitea eta gauzatzea kudeatzea.
12. Unitatearen urteko aurrekontuaren proposamena eta haren jarraipena egitea, eta haren gauzatzea kudeatzea
13. Ordenantza- eta erregelamendu-proposamenak egitea, bere eskumen-eremuan.
14. Zerbitzuak edo hornidurak lizitatzeko beharra proposatzea eta horien berri ematea.
15. Bere eremu funtzionaleko espedienteetan proposamen teknikoen pleguak idaztea, eta horietan oinarritutako lizitazioetan balorazio-txostenak egitea.
16. Kontratazio-organoak hala erabakitzen duen kontratuez arduratzea, zerbitzua edo hornidura ematen dela zainduz eta horien ondoriozko fakturak osatuz.
17. Bere eskumen-eremuko dirulaguntzen eskaera eta justifikazioa bultzatu, koordinatu eta gainbegiratzea.
18. Bere eskumeneko gaiei buruzko informazioa emateko udal-batzordeetara edo beste udal-organo batzuetara joatea, teknikari gisa, hala eskatzen bazaio.
19. Sailetako arduradunen aldizkako bileretan parte hartzea.
20. Beste organismo, erakunde eta profesional batzuekin harremanak bultzatu, ezarri eta garatzea, bere eskumen-eremuan.

ESKU0165166a-969f-4614-9b43-b38bfc235e3a

21. Beren eskumen-eremuan garatutako jarduerak eta programak zabaltzea eta jendaurrean jartzea, sailak proposatzen dituen gizarte-mugimenduak eta ekimen sozialak sustatuz eta dinamizatuz.

ATXIKITAKO BALIABIDEEN AGINTEA:

22. Mendekoek gauzatu beharreko zereginak planifikatzea, antolatzea, gainbegiratzea eta koordinatzea, zerbitzuaren beharren arabera.
23. Mendeko langileei aholkularitza teknikoa ematea, eta haien zalantzak edo sortzen diren gorabeherak ebaztea.

24. Mendeko langileen kudeaketa egitea, eta horiek kontrolatu eta ikuskatzea, eta baimenen, prestakuntzaren, lizentzien eta oporren arloan oniritzia ematea.
25. Mendekoekin koordinazio, ikuskapen eta jarraipenerako bilerak egitea.

EGINKIZUN KOMUNAK:

26. Arloa hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.
27. Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.
28. Unitatera/arlora atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.
29. Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edota eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.
30. Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.
31. Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, aldez aurretik horretarako jarraibideak jasota.

Funtzio hauek guztiak betetzeko Tolosako Udalak beharrezko titulazio gisa Ekonomiako gradua, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza eta antzekoa eskatzea erabaki du.

ESKU0165166a-969f-4614-9b43-b38bfc235e3a

**Laugarrena.-** Oinarri orokorretako 6.3.d) puntuan epaimahaiaren ahalmenen inguruan ondorengoa xedatzen da:

“d) Epaimahaiak ahalmena izango du, oinarri hauetan edo oinarri espezifikoetan aurreikusita ez dagoen guztian, hautaketa prozesua behar bezala antolatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko, eta prozesua interpretatzeari eta aplikatzeari buruz sortzen diren arazoak ebazteko, bai eta bere eginkizunak betetzeari buruzkoak ere. Halaber, dagozkion neurriak hartu ahal izango ditu, bermatzeko hautaketa-prozesuarekin jarraitu ahal izateko adina izangaik probak gaindituko dituztela.”

Horiek horrela, epaimahaiaren ahalmenaren menpean geratzen denez beharrezko diren erabakiak hartzea eta hautaketa-prozesuan parte-hartzeko baldintza gisa Ekonomiako gradua, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza eta antzekoa eskatzen denez, antzekoa atalean "Zientzia Politikoetako Lizentziatura eta Gradua" eta "Soziologiako Lizentziatura eta Gradua" titulazioak onartuko dira, guztiak gizarte-zientzietako adarrekoak baitira.

**PROZEDURA**

Prozedurari dagokionez, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 g) artikuluaren arabera, Alkateari dagokio Udaleko deialdiak onartzea, baina, kasu honetan, lege bereko 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta ikusirik 2023/1718 ebazpena, zeinaren bitartez Alkatetzak Tokiko Gobernu Batzarrean delegatu duen karrerako funtzionarioak zein lanpostu finkoak hornitzeko oinarriak onartzeko eskuduntza, gai hau Tokiko Gobernu Batzarrak ebatzi beharko du.

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**Lehena.-** Garapen ekonomikoa, enplegua, merkataritza, turismoa eta azoketako arduradun plaza betetzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarriak ez baliogabetzea.

ESKU0165166a-969f-4614-9b43-b38bfc235e3a

**Bigarrena.-** Hautaketa-prozesua ez etetea.

**Hirugarrena.-** Hautaketa-prozesuan parte-hartzeko eskatzen den titulazio gisa "Zientzia Politikoetako Lizentziatura eta Gradua" eta "Soziologiako Lizentziatura eta Gradua" titulazioak onartzea, biak ere gizarte-zientzietako adarrekoak izanik.

**Laugarrena**.- Akordioa Madrilgo Erkidegoko Politologoen eta Soziologoen Elkargo Profesionalari jakinaraztea.

## 4. ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUAK: PRAKTIKALDIA KONBALIDATZEKO PROPOSAMENA ONARTZEA.

**IKUSIRIK**

**LEHENA.-** Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko abenduaren 1ean eta abenduaren 2an egindako bileran, abenduaren 28ko 20/2021 legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuen oinarri orokorrak eta espezifikoak onartu zituen. Oinarriak, orokorrak eta espezifikoak, 2022ko abenduaren 28an Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu ziren.

Oinarri hauek, izenak berak dioen bezala, salbuespenezko izaera dute, hau da, lehiaketa fase bat soilik dago (oposizio faserik gabe) eta honen ondorioz, puntuazio gehien lortzen duen hautagaia praktiketako funtzionario edo lan kontratudun finkoa bihurtu daiteke, hori bai probaldi edo praktika epealdi bat egin ostean.

**BIGARRENA**.- Oinarri espezifikoei dagokionean, honako lanpostuak atera ziren:

| DEIALDIA | AZPITALDEA | KOPURUA | PLAZEN IZENA |
|---|---|---|---|
| 1 | AO- A1 | 1 | **Komunitate eta Gobernantzako arduraduna** |
| | | 1 | **Berdintasun Teknikaria** |
| | | 1 | **Berdintasun Teknikaria** |
| | | 1 | **Kirol Instalazioko Kudeatzailea** |
| | | 1 | **Gazteri Teknikaria** |
| 2 | AO- A2 | 1 | **Etxebizitzako Teknikaria** |
| | | 3 | **Administraria** |
| | | 1 | **Euskera administraria** |
| 3 | AO- C1 | 1 | **Kiroletako administraria** |
| 4 | AO- C2 | 1 | **Kulturako laguntzaile balioaniztuna** |
| 5 | AO- AP | 1 | **Eskoletako atezaina** |

ESKU0165166a-969f-4614-9b43-b38bfc235e3a

| DEIALDIA | AZPITALDEA | KOPURUA | PLAZEN IZENA |
|---|---|---|---|
| | | 1 | **Informatikako arduraduna** |
| 6 | AB- A1 | 1 | **Arkitektoa** |
| 7 | AB- A1 | 1 | **Hirigintza, obrak eta zerbitzuetako arduraduna** |
| | | 3 | **Gizarte Langilea** |
| | | 1 | **Obretako Ingeniari Teknikoa** |
| | | 1 | **Ingurumen eta Landa-eremuko Teknikaria** |
| | | 1 | **Txistu irakaslea/bandako zuzendaria** |
| | | 1 | **Klarinete irakaslea** |
| | | 1 | **Biolontxelo irakaslea** |
| | | 1 | **Perkusio irakaslea** |
| | | 1 | **Trompa irakaslea** |
| | | 1 | **Dultzaina irakaslea** |
| | | 1 | **Tronpeta irakaslea** |
| | | 1 | **Oboe irakaslea** |
| | | 1 | **Kontrabaxu irakaslea** |
| | | 1 | **Koral irakaslea** |
| | | 1 | **Musika bandako zuzendaria** |
| | | 5 | **Txistularia** |
| | | 1 | **Euskaltegiko irakasle-zuzendaria** |
| | | 1 | **Euskaltegiko idazkari akademikoa-irakaslea** |
| 8 | AB- A2 | 1 | **Liburutegi-zerbitzuaren arduraduna** |
| | | 2 | **Udaltzaina** |
| | | 1 | **Udaltzaina** |
| 9 | AB- C1 | 1 | **Udaltzaina** |
| 10 | AB- C1 | 1 | **Delineatzailea-ikuskatzailea** |
| 11 | AB- C2 | 1 | **Gidari pertsonal balioaniztuna** |
| 12 | AB- AP | 2 | **Pertsona balioaniztuna** |

**HIRUGARRENA.-** Enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesu hauetan, praktikaldiari dagokionean, hauxe xedatzen du:

> ***“15. Probaldia edo praktikaldia.***
>
> *15.1. Praktikaldi bat ezarriko da funtzionarioen plazetarako, eta probaldia lan-kontratuko langileen plazetarako kasu zehatz bakoitzean. Kasu horretan, eta aldi horrek irauten duen bitartean, kontratatutako pertsonak edo praktiketako funtzionario izendatutakoak normaltasunez beteko ditu bere zereginak, eta ordainsariak jasotzeko eskubidea izango du, indarrean dauden negoziazio kolektiboko tresnetan ezarritako aurreikuspenen arabera. Probaldia edo praktikaldia egoitza korporatibo berean egingo da, pertsona baten tutoretzapean (edo batzorde*

ESKU0165166a-969f-4614-9b43-b38bfc235e3a

*ebaluatzaile baten tutoretzapean). Pertsona horrek karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finkoa izan beharko du, Alkatetzak izendatua.*

*15.2. Probaldiaren edo praktikaldiaren iraupena jarraian adierazitakoa izango da, dagokion taldean eta azpitaldean edo eskalan eta azpieskalan sartzeko eskatzen den titulaziorako parekatutako lanbide-talde edo -kategoriaren arabera:*

***a) A eta B taldeak: 6 hilabete***

***b) C taldea: 3 hilabete***

***c) Lanbide-taldeak: 3 hilabete***

*15.3 Aldi horretan, tutore izendatutako pertsonak (edo ebaluazio-batzordeak) ahaleginak egin beharko ditu hautagaiak prestakuntza praktikoa eskura dezan eta arian-arian dagozkion funtzioak bere gain har ditzan.*

*15.4. Aldi hori amaitutakoan, tutore izendatutako pertsonak (edo ebaluazio-batzordeak) txostena egingo du, eta bertan berariaz adierazi beharko du hautagaiek probaldia edo praktikaldia gainditu duten. Gainditzen dutenak karrerako funtzionario izendatuko dira edo lan-kontratu finkoa formalizatuko dute. Bestela, ez-gaitzat joko dira Lehendakaritzaren ebazpen arrazoituaren bidez, eta aldez aurretik entzunaldia emango zaie, tutorearen (edo ebaluazio-batzordearen) txostena ikusita. Ondorioz, karrerako funtzionario izendatzeko eta lan-kontratuko langile finko gisa kontratatzeko eskubide guztiak galduko dituzte.*

*15.5. Karrerako funtzionarioaren izendapena lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta legez ezarritako beste edozein aldizkaritan argitaratuko da.”*

**LAUGARRENA**.- Enplegu Publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapenetan ezarritakoa aplikatuz, hautaketa jardunbideak amaituak egon beharko dute 2024ko abenduaren 31a baino lehen.

**BOSGARRENA**.- Ikusirik hautaketa jardunbideen egoera orokorra, non lehiaketa fasea oraindik martxan dagoen ia deialdi gehienetan, langileen ordezkaritza bere kezka azaldu du kontuan hartuta lanpostu gehienak sei hilabetetako praktika epealdia dutela.

**SEIGARRENA.-** Txosten honen xedea da 2024ko abenduaren 31a baino lehen urterako praktika epealdia amaitzeko bideak aztertzea da, abenduaren 20/2021 Legearen xedapenak betetzeko helburuarekin.

ESKU0165166a-969f-4614-9b43-b38bfc235e3a

**KONTUAN HARTURIK**

**LEHENA.-** Enplegu Publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak, urte luzeetan sortu den bitartekotasunari erantzun bat emateko onartu zen; honela zioen azalpenean adierazten duen bezala:

> *" En este sentido, ha de tenerse en cuenta que si bien una tasa de temporalidad es necesaria e inherente a cualquier organización, no lo es cuando deviene en estructural y supone en algunos sectores de la Administración tasas cercanas al cincuenta por ciento de su personal.*
> *…/…*
> *La primera de las actuaciones previstas por dicha reforma es precisamente la adopción de medidas para mejorar la eficiencia de los recursos humanos reduciendo los altos niveles de temporalidad y flexibilizando la gestión de los recursos humanos en las Administraciones Públicas. El objetivo de la reforma es situar la tasa de temporalidad estructural por debajo del 8 por ciento en el conjunto de las Administraciones Públicas españolas, actuando la reforma en tres dimensiones: adopción de medidas inmediatas para remediar la elevada temporalidad existente, articulación de medidas eficaces para prevenir y sancionar el abuso y el fraude en la temporalidad a futuro y, por último, potenciación de la adopción de herramientas y una cultura de la planificación para una mejor gestión de los recursos humanos.*

*…/…*

> *Las medidas contenidas en la Ley pretenden garantizar que las Administraciones Públicas inicien una senda de reequilibrio que aporte credibilidad a la evolución futura de la temporalidad en el empleo público, a fin de situar la tasa de cobertura temporal por debajo del ocho por ciento de las plazas estructurales, y, en esa medida, pueda predicarse de cada una de ellas la conexión de sentido requerida por la jurisprudencia constitucional."*

**BIGARRENA**.- Abenduaren 1eko 11/2022 Euskal Enplegu publikoaren Legeak bere 79 artikuluan praktika epealdia hautaketa prozesuen zati bat bezala kontsideratzen du, oinarrien edukien barnean sartzen baitu praktika epealdiaren iraupena.

> *"79. artikulua.– Deialdiaren oinarriak.*
>
> *1.– Hauek sartu behar dira hautaketa-prozesuetako deialdi-oinarrietan*
> *…/…*
> *i) Zenbat iraungo duen praktikaldiak edo probaldiak, halakorik bada."*

**HIRUGARRENA.-** Dena den, Donostiako Auzitegiak, egonkortze prozesuei buruzko auzi batean, 20/2021 Legetik eratorritako hautaketa prozesuak (lehiaketa bidez bideratzen ari direnak), **salbuespen** izaera ematen dio. Honelaxe adierazten du:

ESKU0165166a-969f-4614-9b43-b38bfc235e3a

*"Se trata de un proceso de estabilización como media complementaria inmediata para paliar la situación de temporalidad existentes en las administraciones públicas. Debiendo estar a la D.A 6ª de la Ley que permite con carácter excepcional que se convoquen por sistema de concurso aquellas plazas ocupadas con carácter temporal de forma ininterrumpida con anterioridad a 1 de enero de 2016. Aludiéndose al concepto jurisprudencial de interinidad de larga duración superior a 5 años. Encontrándonos ante plazas vacantes de naturaleza estructural.*

*Pues bien, no obstante encontrarnos ante procedimientos de libre concurrencia, es lo cierto que la posición del recurrente, como funcionario interino en puesto concreto de agente de policía local, no puede obviarse, ya que de facto el venir ocupándolo le sitúa en una posición en la que de superar el proceso selectivo no se produce el acceso a la función pública, sino que lo que se opera es un cambio en su régimen personal, pasando de ser titular interino a ser titular funcionario de carrera; a diferencia de lo que sucedería si el recurrente pretende acceder a otros puestos que se convoquen, pero con los que no tiene relación ninguna; la libre concurrencia le faculta como a cualquier otro ciudadano, peor a diferencia de lo que sucede con el puesto que ocupa desde 2001, en los "otros" puestos con los que no se tienen relación previa si opera en sentido estricto un acceso al mismo.*

*Esta interpretación es, a su vez, la única que cohonesta con la conocida doctrina jurisprudencial, sobre imposibilidad de discriminación y diferencia de trato entre funcionarios de carrera y funcionarios interinos en cuanto a derechos o facultades de ambos; cuestión sobre la que se pronuncia el TSJPV en Sentencia 485 2023, de 2 de noviembre, RJCA 256 2022; dice esta Sentencia en su fundamento de derecho cuarto…."*

Halaber, aipaturiko Auzitegi Nagusiaren epaiak, Enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetan, beharrezkoa da 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/70/EB Zuzentarauari erreferentzia eginaz, hainbat diskriminazio kasua aipatzen ditu gai desberdinetan:

*"TSJPV en Sentencia 485 2023, de 2 de noviembre, donde menciona una Sentencia del TJUE en el asunto C-226/2021: "….38. Habida cuenta de los objetivos que persigue el Acuerdo Marco, la cláusula 4 de este debe entenderse en el sentido de que expresa un principio de Derecho social de la Unión que no puede ser interpretado de manera restrictiva (véase, en particular, la sentencia de 25 de julio de 2018, Vernaza Ayovi, C-96/17, EU:C:2018:603, apartado 23 y jurisprudencia citada).*

*39. Así, el Tribunal de Justicia ha declarado que el criterio decisivo para determinar si una medida está incluida en el concepto de "condiciones de trabajo", en el sentido de la cláusula 4, apartado 1, del Acuerdo Marco, es precisamente el del empleo, es decir, la relación laboral entre el trabajador y su empresario (véase, en particular, la sentencia de 25 de julio de 2018, Vernaza Ayovi, C-96/17, EU:C:2018:603, apartado 27 y jurisprudencia citada).*

*40. A este respecto, el Tribunal de Justicia ya ha declarado que están comprendidos en el concepto de "condiciones de trabajo", en particular, los trienios de antigüedad ( sentencias de 13 de septiembre de 2007, Del Cerro Alonso, C- 307/05, EU:C:2007:509, apartado 47, y de 22 de diciembre de 2010,*

ESKU0165166a-969f-4614-9b43-b38bfc235e3a

*Gavieiro Gavieiro e Iglesias Torres, C-444/09 y C- 456/09, EU:C:2010:819, apartados 50 a 58), los sexenios de formación permanente ( auto de 9 de febrero de 2012, Lorenzo Martínez, C-556/11, no publicado, EU:C:2012:67, apartado 38), la indemnización que un empresario está obligado a pagar a un trabajador debido a la inclusión ilícita de una cláusula de terminación en su contrato ( sentencia de 12 de diciembre de 2013, Carratú, C-361/12, EU:C:2013:830, apartado 38), la participación en un plan de evaluación profesional y el incentivo económico que se deriva de ella en caso de evaluación positiva ( auto de 21 de septiembre de 2016, Álvarez Santirso, C-631/15, EU:C:2016:725, apartado 36), la participación en un sistema de carrera profesional horizontal que da lugar a un complemento retributivo ( auto de 22 de marzo de 2018, Centeno Meléndez, C-315/17, no publicado, EU:C:2018:207, apartado 47), las normas relativas a la determinación del plazo de preaviso para la resolución de los contratos de trabajo de duración determinada ( sentencia de 13 de marzo de 2014, Nierodzik, C-38/13, EU:C:2018:207, apartado 29) las indemnizaciones concedidas al trabajador debido a la finalización del contrato ( sentencia de 5 de junio de 2018, Grupo Norte Facility, C- 574/16, EU:C:2018:390, apartado 44), el régimen de reincorporación aplicable al trabajador en caso de despido ( sentencia de 25 de julio de 2018, Vernaza Ayovi, C-96/17, EU:C:2018:603, apartado 30), o la reducción de la jornada laboral a la mitad y el retroceso retributivo que se desprende de ella ( auto de 9 de febrero de 2017, Rodrigo Sanz, C- 446/16, EU:C:2017:109, apartado 33). (pág. 10 de la sentencia).”*

Hori horrela, epai hauetan oinarrituta, garatutako esperientzia eta merituak egiaztatu eta gero, praktikaldia diskriminatzailea izan daiteke, hau da, hautagaiek salbuespenezko hautaketa jardunbideetan parte hartzen duten kasuetan, **funtzio berdinak** garatu baldin badituzte urte askotan zehar, lanposturako gaitasuna frogatu dutela kontsideratu daiteke.

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

Hori horrela, praktika epealdiaren konbalidazioa burutu ahal izateko, arestian aipaturiko epaiak kontuan hartuta, honako irizpideak finkatu beharko dira, konbalidazioa eman ahal izateko:

**Lehena**.- Hautagaiak betetzen ari den lanpostua eta salbuespenezko hautaketa jardunbideen ondorioz, hautatutako eta esleitutako lanpostuak, funtzioetan identitatea mantendu beharko du (zentzu honetan azpimarratu behar da funtzioetan parekotasuna eduki beharko duela, ez zereginetan)

**Bigarrena**.- Praktikak konbalidatzeko prozedura ebazpen bidez arautzea eta

ESKU0165166a-969f-4614-9b43-b38bfc235e3a

honetarako, Giza Baliabideetako zinegotzi delegatuari ahalmena ematea prozeduraren xehetasunak finkatzeko.

**Hirugarrena**.- Praktiken konbalidazio honetatik at geratuko dira udaltzainei dagozkien lau plazak; kasu honetan, Arkautek ezarritako formazio eta praktika epea burutu beharko dute.

## 5. ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUAK: OSAGARRI PERTSONAL IRAUNKORREI BURUZKO PROPOSAMENA ONARTZEA.

**I K U S I R I K**

**LEHENA.-** Tolosako udalbatza osoak, 2022ko abenduaren 15ean egindako ohiko bilkuran, erabaki hauek hartu zituen, besteak beste:

***LEHENA.-*** *Tolosako udaleko lanpostuen katalogoa, sailen organigrama, lanpostu zerrenda eta lanpostuen balorazioari buruzko alegazioak erantzutea dokumentu honen aurrekarietan aipaturiko moduan.*

***BIGARRENA.-*** *Behin-betiko izaeraz onartzea honako dokumentu hauek (eranskinak lotzen dira):*

*1. Tolosako Udaleko lanpostuen katalogoa*
*2. Tolosako Udaleko sailen organigrama*
*3. Tolosako udaleko Lanpostuen Zerrenda eta Plantilla Organikoa onartzea, honako xehetasunekin:*
*3.1.- "Kirol instalazioetako kudeatzaile" lanpostua, "Gazteri teknikari" lanpostua, eta "Berdintasun teknikari" lanpostua Administrazio orokorreko eskalan uztea.*
*3.2.- "Kirol instalazioetako kudeatzaile" lanpostuan, "Gazteri teknikari" lanpostuan, "berdintasun teknikari" lanpostuan, "Musika Eskolako irakasle lanpostuan" eta "Txistulari" lanpostuan titulazioak egokitzea.*
*3.3- " Komerzializazio agente" lanpostua, "transizio energetikorako administrari" lanpostuan bihurtzea.*
*3.4.- Lanpostu zerrendari dagokionean, honako lanpostuak sortu eta amortizatzea:*
*- 10.105 kodea duen "kiroldegiko begirale" lanpostua amortizatzea.*
*- 13.103 kodea duen "Informatikari teknikari laguntzaile" lanpostua sortzea.*
*4. Lanpostuen balorazioa, Rodriguez Viñals enpresak egindako txosten juridiko-teknikoan oinarritua.*

ESKU0165166a-969f-4614-9b43-b38bfc235e3a

***HIRUGARRENA**.- Lanpostuen balorazioari buruzko honako xehetasun hauek onartzea:*
*……………...*
*7. Balorazioaren emaitzak ondorio negatiboak dakarzkien lanpostuen kasuan, aldi baterako osagarri iragankorrak onartzea. Nolanahi ere, osagarri horri Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeek ezarritako araubidea aplikatu beharko zaio.*
*Era berean, 2005ean onartutako balorazioaren edo ondorengo balorazioen ondorioz ezarritako osagarri pertsonal iragankorrak indargabetzea.*

**BIGARRENA.-** Lanpostuen balorazioaren ondoren aitortutako ordainsarien aldearen ondorioz osagarri pertsonal iragankorra aitortu zitzaien enplegatu batzuei. Enplegatu hauek parte hartu dute udal honek sustatutako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuan, Enplegu Publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapenetan ezarritakoa aplikatuz.

Honako hauek dira finkatzeko ezohiko prozesuan sartutako lanpostuak, baldin eta titularrak bitarteko funtzionarioak edo aldi baterako lan-kontratudun langileak badira eta aldi baterako osagarri pertsonala aitortuta badute:

- 2.108: Fakturetako administrari-laguntzailea (administraria).
- 3.104: Etxebizitzako teknikaria.
- 6.208: Delineatzaile-ikuskatzailea.
- 8.109: Kulturako laguntzaile polibalentea.
- 8.201: Gazteriako teknikaria.
- 8.110: Liburutegi-zerbitzuaren arduraduna.
- Musika Eskolako hainbat irakasle.
- 8.401: Udal Musika Bandaren zuzendaria.
- 8.402: Txistulariak.
- 9.204: Euskaltegiko administrari laguntzailea
- 10.102: Kirol Instalazioen kudeatzailea.
- 12.101: Komunitate eta Gobernantzako teknikaria.

*(11.102 lanpostuko Berdintasun teknikariak bazuen osagarri hau, baino jubilazioa hartu du)*

**HIRUGARRENA.-** Txosten honen xedea da aztertzea ea osagarri pertsonal iragankorrek iraun behar duten ala ez bitarteko funtzionarioak eta aldi baterako langileak karrerako funtzionario edo lan-kontratudun langile finko bihurtzen badira aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuaren ondorioz.

ESKU0165166a-969f-4614-9b43-b38bfc235e3a

## KONTUAN HARTURIK

**LEHENA.- Osagarri pertsonal iragankorraren araubidea.**

7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak onartzen dituenak bere 93. artikuluan xedatzen duenez, Toki-administrazioko funtzionarioen oinarrizko ordainsariek funtzio publiko osorako oro har ezarritako egitura bera eta zenbateko bera izango dute. Halaber, ordainsari osagarriak, era berean, gainerako funtzionario publikoen egituraren eta balorazio objektiborako irizpideen araberakoak izango dira.

Osagarri Pertsonal Iragankorraren jatorria apirilaren 25eko 861/1986 Errege Dekretuaren 1. xedapen iragankorraren 4. atalean dago. Horren bidez, Toki Administrazioko funtzionarioen ordainsarien araubidea ezartzen da, Funtzio Publikoa Berritzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 10. xedapen iragankorrean ezarritakoarekin bat etorriz.

Aipatutako 861/1986 Errege Dekretuaren 1. xedapen iragankorrak honako hau xedatzen du:
« *4. Cuando por la aplicación del régimen establecido en el presente Real Decreto a un funcionario le correspondiese percibir en 1986 retribuciones inferiores a las que resulten de la aplicación del apartado anterior por todos los conceptos, se le aplicará un complemento personal transitorio y absorbible por futuros incrementos de las retribuciones, incluidos los derivados del cambio de puesto de trabajo. A efectos de la absorción prevista en el párrafo anterior, no se considerarán los trienios, el complemento de productividad ni las gratificaciones por servicios extraordinarios a que se refieren los apartados c) y d) del artículo 23.3 de la Ley 30/1984.”*

Xedapen baliokide bat sartu da urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 1. xedapen iragankorrean: *1. El desarrollo del presente Estatuto no podrá comportar para el personal incluido en su ámbito de aplicación, la disminución de la cuantía de los derechos económicos y otros complementos retributivos inherentes al sistema de carrera vigente para los mismos en el momento de su entrada en vigor, cualquiera que sea la situación administrativa en que se encuentren.*
*2. Si el personal incluido en el ámbito de aplicación del presente Estatuto no se encontrase en la situación de servicio activo, se le reconocerán los derechos económicos y complementos retributivos a los que se refiere el apartado anterior a partir del momento en el que se produzca su reingreso al servicio activo.*

ESKU0165166a-969f-4614-9b43-b38bfc235e3a

Eusko Legebiltzarreko 11/20022 Legeak, Euskal Enplegu Publikoa arautzen duenak, Osagarri Pertsonal Iragankorra arautzen du 132. Artikuluan. Kasu honetan, honako xedapen hauek kontuan hartu beharko genituzke:

*132. artikulua.– Osagarri pertsonal iragankorrak.*
*1.– Funtzionarioek osagarri pertsonal iragankorrak jaso ahal izango dituzte kasu hauetan baldin eta murrizketa gertatzen bada beren ordainsari finko eta periodikoen urteko zenbatekoan:*
*….*
*b)* ***Administrazioak lanpostu baten balorazioa aldatuz gero, lanpostu horren titularrak osagai iragankor bat jasoko du, diferentziarengatik, harik eta beste lanpostu bat betetzen duen arte****.*

Lan-itunpeko langileen kasuan, 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Langileen Estatutua onartzen duenak, honako hau xedatzen du bere 26 artikuluan:

*Artículo 26. Del salario*
*"3. Mediante la negociación colectiva o, en su defecto, el contrato individual, se determinará la estructura del salario, que deberá comprender el salario base, como retribución fijada por unidad de tiempo o de obra y, en su caso, complementos salariales fijados en función de circunstancias relativas a las condiciones personales del trabajador, al trabajo realizado o a la situación y resultados de la empresa, que se calcularán conforme a los criterios que a tal efecto se pacten. Igualmente se pactará el carácter consolidable o no de dichos complementos salariales, no teniendo el carácter de consolidables, salvo acuerdo en contrario, los que estén vinculados al puesto de trabajo o a la situación y resultados de la empresa.*
*4. …………....*
*5. Operará la compensación y absorción cuando los salarios realmente abonados, en su conjunto y cómputo anual, sean más favorables para los trabajadores que los fijados en el orden normativo o convencional de referencia."*

**BIGARRENA.- Osagarri Pertsonal Iragankorraren izaera juridikoa.**

Aurreko atalean aipatu den moduan, Osagarri Pertsonal Iragankorra erabiltzen da, besteak beste, enplegatu publikoen ordainsariak bermatzeko, lanpostuen balorazio-prozesu baten ondorioz.

ESKU0165166a-969f-4614-9b43-b38bfc235e3a

Honela, Auzitegi Gorenaren 2009ko apirilaren 27ko epaiak (5041/2005 errek.) aukera ematen du aldi baterako osagarri pertsonala erabiltzeko, zenbait funtzionariok, lanpostuen balorazio-prozesu baten ondoren, ordainsarietan izan zuten murrizketa konpentsatzeko. Zentzu honetan, honako hau adierazten du: *La finalidad del complemento personal transitorio es respetar el nivel retributivo como derecho adquirido del funcionario y tiene por objeto compensar la depreciación del poder adquisitivo de dichos funcionarios".* Auzitegi Gorenak iritzi berdina mantentzen du honako epaietan: 1995eko maiatzaren 29koan (1311/1992 errek), 2006ko ekainaren 20koan (7433/1997 errek) eta 2007ko martxoaren 19koan (1696/2002 errek). Azken honetan honako hau adierazten du maila goreneko Auzitegiak: *"…este complemento regula supuestos excepcionales en los que la legislación básica permite que, por medio de este tipo de retribuciones, se mitiguen las situaciones merecedoras de compensación transitoria."*

